

Funtsezko jarduerak

Hornitzaileari egiten dizkiogun erosketak, bezeroen erosketen eskaerak biltzea eta prestatzea, bezeroen erosketak pertsonalizatuak banatzeko eraginkortasuna eta abiadura, bezeroarentzako zerbitzua eta erosketak prestatzea dira gure balio proposamena egiteko egin behar ditugun jarduerak nagusiak. Funtsezko beste prozesua produktua edo zerbitzua ematea da. Alde batetik, bezeroen segmentu ezberdinei balio-proposamena eskaintzeko, eskaintza berezi eta bereizgarria eskainiko dugu: bezeroen produktu gogokoenak eta prezio hoberenera eskaini, urtaroaren arabera.

- Bezeroen erosketak biltzea eta prestatzea da gure jarduerak garrantzitsuenak. Gure webgunera edota telefonoz jasotako eskaerak herriko dendetan jasoko ditugu eta gure lokalean batuko ditugu bezero bakoitzaren erosketak osatzeko. Osatu ostean gure entrega zerbitzuarekin etxera eroan dezakegu edota gure lokalean jaso dezakete erosketak gure bezeroek.
- Efizientzia. Garrantzi asko ematen diogu eskaera prestatzen ematen dugun denborari, horregaitik gure eskaerak 3 - 4 orduetan jasotzeko prest egon beharko lirateke.
- Bezeroekiko harremana: gure lokalean zein entrega zerbitzuan bezeroekiko harreman ona eta pertsonala.
- Diru sarrerak

Gure hasierako inbertsioa 25.000€koa izango da (6.250€ bakoitzak). Honekin hasierako gastu guztiei aurre egiteko gai izango gara (lokalaren alokairua, web-a, interneta, kapital fisikoa...).



Beste alde batetik, gure diru sarreraren iturri nagusia bat bateko ordainketak izango dira. Horretaz gain, harpidetza mota desberdinak izango ditugu, publizitatea web orrialdean, beste enpresen babesak, udaletxearen inbertzioak eta diru llaguntzak...

Kontuan izanda gure enpresa komertzio lokalaz baliatuko dela, etekinak aterako ditugu komertzioen zein kontsumitzaileengandik, horrela bitartekaritzako negozioia egingo dugu produktuak enkarguz lortzen eta lokalean jaso, zein etxeetara bidaliz (kostu gehigarri baten truke) .



Gure proiektzioa da urte eta erdi igaro baino lehen errentagarritasuna lortzea edo behintzat gure hasierako inbertsioa errekuperatuta izatea. Ordurako, Erandioko bizi kalitatea eta batez ere gure udalerriko negozioek jasaten ari diren garai latz hauetan behar duten bultzada ematea.

